

EMAKUME SORTZAILEAK

EMAKUME
IDAZLEEN
NAZIOARTEKO
TOPAKETA

IRUÑA,
IRAILAREN
30etik
URRIAREN
8ra

Lehenbiziko aldiz, Nazioarteko Biltzar batek Iruñean elkartuko ditu, irailaren 30etik urriaren 8ra, munduko hainbat lekutatik etorritako zenbait emakume idazle. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak bultzatu eta finantzatu du lane-rako programa hau, eta IPESek kudeatu, ondoko plan honen esparruan: Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. plana (2006-2010). Idazle horien lanen berri beren ahotik ikastea, idazle horien bidez beste batzuk ezagutzea, beren esperientziaren bitartez literatura sorkuntzarako hainbat modu jasotzea... Horra hor programaren helburuetako batzuk. "Emakume sortzaileak" programaren bigarren urtean egingen da Nazioarteko Biltzar hau, eta 2009an emakume idazle nafarrak omenduko ditu, bereziki idazteaz bizitzea aukeratu duten horiek.

Sara Ibarrola Intxusta

Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendari kudeatzailea

EMAKUME SORTZAILEAK

EMAKUME IDAZLEEN
NAZIOARTEKO
TOPAKETA

IRUÑA,
IRAILAREN
30etik
URRIAREN
8ra

EKINTZAK

TOPAKETA IDAZLEEKIN

SORMEN LANTEGIAK

SORKUNTZA MULTIMEDIAN

ZINEMAKO IDAZLEAK

EMAKUME NOBEL SARIDUNAK

NAFARROAKO EMAKUME IDAZLEEN TOPAKETA

Gune honen bitartez ospe handiko egileak elkartzea proposatzen da; kultura, belaunaldi eta literatura proposamen desberdinetatik heldu diren egileak, hain zuzen ere, eta beren mintzaldien bidez emakumeen sorkuntzaren ikuspegi oparoa eta askotarikoa hurbilduko digute, gaur egungo kezkekin lotua.

Anne Perry

Blackheath, 1938



Irailaren 30a
19:30
Kondestablea-
ren jauregia

Garai viktoriarreko krimenaren erreginatzat hartzen da, bere misteriozko nobelengatik, zeren horietako asko XIX. mendeko Ingalaterran gertatzen baitira. Nabarmentzekoak dira Monk detektibea protagonista dutenak: *Arrotz baten aurpegia*, *Goiz arriskutsua*, *Defentsa eta traizioa* edo *Bat-bateko heriotza beldurgarria*, besteak beste. Orobat, Thomas Pitt polizia eta Charlotte emazte argiarenak, esaterako *Carter kaleko borroa*. Era berean, Lehen Mundu Gerraren garaian gertatzen diren zenbait nobela arrakastatsu idatzi ditu, adibidez argitaratu berri den *Ez dugu lorik hartuko*. Liburuetan azaltzen dituen garaietako arazo sozial, ideologiko eta politikoetan eta giro kulturalean murgiltzen da Anne Perry, eta bere pertsonaiei sakontasun handia ematen die. Ezagutza eta kultura handiko emakumea da. Opera maite du eta ingelesera itzuli ditu zenbait testu grekeratik, latinetik eta italieratik, Danteren *Jainkotiar komedia* esate baterako. Portmahomack-en bizi da, Eskoziako iparraldean.

Calixthe Beyala

Douala, 1961



Urriaren 2a
20:00
Kondestablea-
ren jauregia

Zailtasun handiak izan zituen haurtzaroan, eta, Nboppi auzoan eta Doualako politeknikoan ikasketak egin ondoren, hamazazpi urtetan Kamerun utzi eta Parisera emigratu zuen. Han bizi da egun, alabarekin. Ezaguna da emakumearen eta gutxiengoaren alde egiten duen borrokagatik. Urte erdia Kamerunen ematen du, herrikideen bizi baldintzak hobetzeko lanean, eta beste erdia Frantzian. 1987tik ez dio utzi idazteari, eta baditu hogeita nobela mundu guztian barna itzuliak, horietarik hiru Espainian: *Galdutako ohoreak*, 1997; *Afrika bihotzean*, 1998; *Emakume biluzia, emakume beltza*, 2004. Irakurleen arrakastaz gain, bere lanek sari asko jaso dituzte, besteak beste, nabarmenenak, Frantziako Akademiaren Sari Handia eta Afrika Beltzaren Saria. Arteen eta Letren Ordenaren Zaldun izendatu zuen Frantziako Gobernuak.

Carme Riera

Palma de Mallorca, 1948




Urriaren 5a
20:00
Kondestablea-
ren jauregia

1975ean eman zuen ezagutzera bere burua, *Maitea, itsasoa uzten di-zut bahi gisa* (Te deix, amor, la mar com a penyora) lanarekin. Hogeita hamabost argitaraldi baino gehiago izan ditu. Lan horren ondotik iritsi ziren, besteak beste, *Una Primavera per a Domenico Guarini* (Prudenci Bertrana Saria), *Joc de miralls* (Ramon LLull Saria), *Dins el darrer blau* (Narratibako Sari Nazionala, Josep Pla Saria, Creixells Saria, Lletra d'or Saria eta Vittorini Nazioarteko Saria). 1998an *Itxaroteko denbora* (Temps d'una espera) argitaratu zen, haurdunaldiaren eta amatasunaren gaineko hausnarketa bat. *Zerutik eta haratagotik* (Cap al cel obert) nobelak, 2001ean, Kataluniako Kritikaren Saria eta Kataluniako Generalitatearen Literatura Sari Nazionala jaso zituen. 2004ean Sant Jordi Saria eman zitzaion *Arimaren erdia* (La meitat de l'ànima) eleberriari, baita María Angela Anglada Saria ere. 2006ean *Ingelesaren uda* (L'estiu de l'anglès) atara zen argitara eta, 2009an, *Amb ulls americans*. Hainbat hizkuntzatar itzuli dira bere lanak.

Xenia Dyakonova

San Petersburg, 1985



Urriaren 7a
20:00
Kondestablea-
ren jauregia

Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatua lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean. Bi poema liburu idatzi ditu, errusieraz: *Nire bizitza ni gabe* (Moya zhizn' bez menya), 2003koa, eta *Oporrak* (Kannikuly), 2007koa, eta *Izen Berriak* (Novye imena) gazteen saria jaso zuen 2003an. Txekhoven *Monje beltza* nobela katalanera itzuli du, eta, José Mateorekin batera, Lev Rubinsteinen *Berritasun komikoen bilduma* gaztelaniara. Literaturako kritikari gisa ere kolaboratu du *Avui* egunkarian. Gaur egun Bartzelonan bizi da, eta eskolak ematen ditu Bartzelonako Ateneoaren Idazketa Eskolan.

Elvira Navarro

Huelva, 1978



Urriaren 7a
20:00
Kondestablea-
ren jauregia

Hiria neguan argitaratu du, baita artikulak eta ipuinak ere, zenbait aldizkaritan, esaterako hauetan: *Ínsula*, *Turia*, *Calle 20*, *El Duende de Madrid*, *Crítica*, *El Perro* eta *Público* egunkaria. Literaturako kritikari aritzen da *Qué Leer* eta *El otro lunes* aldizkarietan eta *La tormenta en un vaso* blogean, eta idazketa sortzaileko irakasle jardun du Madrilko Udalerako. Internet bidezko narrazio laburren ikastaroak koordinatzen ditu Fuentetajarako, eta narrazio laburreko zenbait sari irabazi, horien artean nabarmenena Madrilko Udalaren Sortzaile Gazteen Lehiaketakoa, 2004an. 2005etik 2008ra bitartean Madrilko Udalen sormen beka bat izan zuen, Ikasleen Egoitzan.

Arlo bakoitzeko espezialistek zuzenduko dituzte. Sarrera teorikoa izanen dute, eta bertaratutakoekin jarduera praktikoak egingen dira.

Lantegia: erritmoa, ahotsa, testua.
Virginia Firnberg-ekin.

Erresuma Batuko konpositorea eta idazlea. Aylesburyn jaio zen, 1965ean. Bere musika-eta ahots-lanak originalak dira, eta etengabe bilakatzen ari dira. Konparaziorako, *The Sky is singing*, *Molecules* edo *Her Belly* dira garrantzitsuenetakoak. Hainbat beka eta sari jaso ditu bere lanak; horien artean Lillian Hurt konposizioko saria nabarmendu daiteke.

Poesia lantegia, Olvido Garcia Valdés-ekin.

Santianes de Pravia-n (Asturias) jaio zen, 1950ean. Erreferentzietako bat da Espainiako poesia modernoan, eta *Ella, los pájaros*, *Caza nocturna* eta *Del Ojo al hueso* lanak egin ditu, besteak beste. Frantsesera, ingelesera eta alemanera itzuli dira bere poemak, bai eta antologia garrantzitsuetan bildu ere. 2007an Poesiako Sari Nazionala jaso zuen.

Narrazio laburren lantegia, Clara Obligado-rekin.

Idazle argentinar hau Madrilén bizi da 1976tik. Lan hauen egilea da: *La hija de Marx*, *Salsa* eta *Si un hombre vivo te hace llorar* eleberriak, *Las otras vidas* ipuin bilduma eta emakumearekin eta kulturarekin lotutako gaien zenbait saiakera, esaterako *Qué me pongo* eta *Mujeres a contracorriente*. Idazketa sortzaileko eskola bat gidatzen du Madrilén.

Izena ematea: IPES ELKARTEA, Telleria 28, behea.
Tel. 948 225 991 - ipesmujer@telefonica.net
Kopuru mugatua.



Urriaren 3a
larunbata
16:30
Kondestablea-
ren jauregia



Urriaren 5a
astelehena
16:30
Kondestablea-
ren jauregia



Urriaren 7a
asteazkena
16:30
Kondestablea-
ren jauregia

Multimedia bidez sortzeko eta adierazteko dauden formatu berriei buruz eztabaidatuko da eta, horrela, parte hartzen duten egileek beren lanik berrienetara hurbilduko gaituzte.

Parte-hartzaileak: **Eloísa Otero**, **Charo Garaigorta** eta **Virginia Firnberg**. Bukatzeko, Virginia Firnberg-ek kontzertu-antzezpena egingen du.

Eloísa Otero

Leonen jaio zen 1962an. *Cartas celtas* eta *Tinta preta* poema bildumak argitaratu ditu. Zenbait antologiatan agertu da, esaterako *Ellas tienen la palabra* eta *De los ojos ajenos* izenekoetan. Gaztelaniara itzuli ditu, Manuel Outeiriñorekin batera, X. L. Méndez Ferrín idazle galziarraren bi liburu: *Con pólvora y magnolias* eta *Contra maquilero*. *Isla Kokotero* izeneko bere bloga irakurrienetako da sarean dauden literatura orrien artean.

Charo Garaigorta

Bilbon jaio zen. Lan plastiko garrantzitsuak egin ditu, eta Europan eta Ameriketara barna erakutsi. New York-eko Columbia Unibertsitatean ikasketak bukatu ondoren, artista gisa zuen lana museoetako lanarekin bateratzen hasi zen. Gaur egun Artium-eko hezkuntza departamentua zuzentzen du. Euskal Herrira itzuli ondoren, duela zazpi urte, animazioko filmekin aritzeari ekin zion. Marrazketa da orain bere lanaren ardatza; diziplina gisa hartzen du pentsatzeko eta pentsatzearen beraren egintzaz jabetzeko.

Urriaren 3a
larunbata
19:30
Kondestablea-
ren jauregia



Charo Garaigorta-ren obra plastikoa.

Emakume idazle askoren istorioak eta narrazioak egokitu dira zinemara; oraingoan lagin txiki-txiki bat aukeratu eta topaketa hauetan ikusgai izanen dugu.

ISLAK URRE KOLOREKO BEGI BATEAN

John Huston (AEB, 1967)

Antzezleak: Marlon Brando eta Elizabeth Taylor. **Carson McCullers-en** nobela batean oinarritua.

Armadako kapitain bat ez da zoriontsua ezkontidearekin. Emazteak maitasun kontu bat du armadako kide batekin. Kapitainak, ezkutuan, soldadu bat maite du, baina horrek kapitainaren emazteari eskaintzen dio arreta. Egoerak jeloskortasun-eroaldi bortitza eragiten dio.



Urriaren 1a
osteguna
20:30
Golem
Yamaguchi.

PIANISTA

Michael Haneke (Frantzia-Austria, 2001).

Antzezleak: Isabelle Huppert, Annie Girardot eta Benoît Magimel. **Elfriede Jelinek-en** nobela batean oinarritua.

Erika Kooht pianoko irakaslea da Vienako Kontserbatorioan. Berrogei urte bete berri ditu eta amarekin bizi da. Maiz egiten du ihes haren eragin itogarritik, zinemara eta ikuskizun pornoetara joanez. Erika eta bizia bide desberdinetan barna dabiltza, harik eta ikasle bati irakaslea limurtzea kaskoratzen zaion arte...



Urriaren 6a
asteartea
20:30
Golem
Yamaguchi.

BALKOI HUTSEAN

Jomi García Ascot (Mexiko, 1961).

Antzezleak: Nuri Pereña, María Luisa Elío, Conchita Genovés, Jaime Muñoz de Baena, Belinda Garcí. **María Luisa Elío-ren** nobela batean oinarritua.

Gabriela haurra Iruñean bizi da ahizpa zaharragoarekin eta gurasoekin, eta etxeko leihotik ikusi du nola atxilotzen duten iheslari errepublikar bat teilatu batean. Horrela ulertu du Gerra Zibila. Gabrielaren aita preso dagoenez, familiak alde errepublikarrera egiten du ihes. Gero Frantziara emigratuko dute, eta Mexikora ondoren. Urteak iraganik, Gabriela, heldua jada, eta jakinik zer haustura dakarren deserriak, umetako etxera itzuli da, baina ez daki fantasia bat bizi ote duen edo egiaz iraganeko toki hartara itzultzea lortu duen.



Urriaren 4a
igandea
20:00
Golem
Yamaguchi.

*Mexikoko UNAMeko Filmoteka filma zaharberitzen ari da. Behar den egunerako iristen ez bada, prest dagoen egunean emanen da.

Hitzaldien bidez, Literaturako Nobel Saria jaso duten emakumeen bizitzara eta lanetara hurbilduko gara. Haietako batzuk ahaztu egin dira, beren literatura lana inportantea izanik ere. Lehenbiziko hitzaldian, Nobel Saria jaso eta hilik dauden emakume idazleez hitz egingen da eta, bigarrenean, gaur egun ere idazten segitzen dutenez.

Hona hemen hizlariak:

Eli Tolaretxipi, Ángel García Ronda, Montserrat Fornells eta Luisa Etxenike.

Urriaren
1a eta 6a
18:30
Kondestable
jauregian

1909 Selma Lagerlof (1858-1940). Suediako eleberrigilea. Bere lanak mitoan eta kondairan daude erroturik, Suediako folkloean eta ahozko narratiban. Herrialde hartako literaturan parekorik ez duela jotzen da. Nils Holgerssonek Suedian barna egindako bidaiak egilea ezagutzera eman zuen mundu guztian. Bere liburu autobiografikoak (*Marbacka*, *Ume iratxoa* eta *Selma Lagerlof-en egunerokoa*) "best-seller"ak izan ziren 30eko hamarkadan.



Grazia Deledda

1926 Grazia Deledda (1875-1936). Idazle italiarra zen. Nobelak eta narrazio laburrak idatzi zituen, eta *Ama* izeneko lanean erakutsi zigun, ikuspegi naturalistaz, zein nekagarria eta zaila zen Sardiniako nekazarien bizia, han jaio baitzen. Bere nobela autobiografikoa da *Cósima*.



Pearl S. Buck

1928 Sigrid Undset (1882-1949). Norvegiako nobelagilea. Bere lanen zati handi bat (esaterako *Kristin Lavransdotte* eta *Hestvike-ko jauna* tetralogia) Norvegiako Erdi Aroko historian dago oinarriturik. Egilearen erudizioa eta estilo originala eta lasaia erakusten dute eleberriek.

1938 Pearl S. Buck (1892-1973). Nobelagilea eta biografoa, Estatu Batuetan jaioa. Misiolari protestanteen alaba zen, eta Txinan bizi izan zen gaztetan. Lanik ospetsuena duen *Lur Ona* lanean erakutsi zuen hango gizartea. 80 liburu baino gehiago idatzi zituen. Txinako eleberrien tankerak eragina izan zuen idazlearen estilo soil eta zuzenean.



Gabriela Mistral

1945 Gabriela Mistral (1889-1957). Txilen jaio zen, eta egiazko izena Lucila Godoy zuen. Hezitzailea, saiakera-idazlea eta, batez ere, olerkigilea, adibidez *Desolación*, *Tala* eta *Lagar* lanetan. Nobel Saria jaso zuen lehenbiziko latinoamerikarra izan zen. Askok itzuli da bere poesia. Bere eragina jaso izana aitortu zuten Pablo Nerudak eta Octavio Paz-ek.

1966 Nelly Sachs (1891-1970). Jatorri juduko poeta eta antzerkigilea. Alemanian jaio baina Suedian nazionalizatu zen. 17 urterekin hasi zen idazten. Nazismoan Berlinitik ihes egin eta Suedia hartu zuen bizileku. Juduen historia da gai nagusietako bat bere poesia lirikoan eta dramatikoa, eta lan honetan bildu zuen: *Gardentasunerako bidaia*. *Poesia-lan guztiak*.



Nelly Sachs

1991 Nadine Gordimer (1923). Nobelagile hegoafrikarra, familia judukoa. Hegoafrikako arraza diskriminazioaren kontrako kritika dira bere lanak, bereziki apartheid sistemaren injustiziaren kontrakoak, eta horrek erdi mailako zurien artean sortzen dituen gatazka moralei buruz idazten du. *Semearen historia*, *Arrotzen mundua* eta *Maitatzeko aukera* dira bere liburuetakoko batzuk.



Nadine Gordimer

1993 Toni Morrison (1931). Nobelagile estatubatuarra. Populazio beltzaren egoera azaltzen dute bere lanek, bera haren partaide baita. Ohion jaio zen, Depresio Handian. Familia behartsua zen baina oso baturik zegoen. Hauek ditu lanik nabarmenenak: *Sula*, *Salomonen kantua*, *Jazz* eta *Alaba maitea* (*Beloved*). Azkeneko hori zinemaratu da berriki.



Toni Morrison

1996 Wislawa Szymborska (1923). Poeta eta saiakera-idazlea. Polonian jaio zen, eta laster galdu zuen ilusioa komunismoarekin. Orduz gerortik, bere poesia askoz pertsonalagoa eta barnekoagoa bihurtu zen. *Hitzaren bila nabil*, *Horregatik bizi gara*, *Norberari egindako galderak* eta *Hasiera eta bukaera* bezalako lanekin Europako literaturako toki garrantzitsuenetan kokatu da.

2004 Elfriede Jelinek (1946). Austriarra da, antzerkigilea, nobelagilea eta saiakera-idazlea. Txalotua eta polemikoa: iragan naziari uko egin ez izana leporatzen dio Austriari. Bere lanetan badira antzerkiko eszenen eta filmetako sekuentzien deskribapenak. Irudi estereotipatu bidez azaltzen du nola emakumeek ezin duten osoki bizi. *Maitaleak* lanak egin zuen ezagun, eta, horretaz gain, *Desioa*, *Baztertuak* eta *Pianista* ditu lanik nabarmenenak. *Pianista* 2001ean zinemaratu zuten.



Elfriede Jelinek

2007 Doris Lessing (1919). Persian (egungo Iran) jaio zen, baina nazionalitatez britainiarra da. Rhodesian (egun Zimbabwe) bizi izan zen umetan eta gaztetan. Bere lanak autobiografikoak dira neurri handi batean, eta Afrikan izandako esperientzia oinarritzen da, desengainu sozial eta politikoa. 40 lan baino gehiago idatzi ditu, eta *Urre koloreko koadernoak* (1962) nobelak feminismoaren ikur bihurtu zuen.

María Luisa Elío, Julia Guerra eta María Markotegi oroitzuz

Nafarroako emakume idazleek presentzia berezia izanen dute topaketa hauetan. "Nafarroako emakume idazleak" erakusketa Kondestablearen jauregiko atalondoan izanen da Topaketek irauten duten bederatzi egunetan. Nafarroako emakume idazle nagusien lanak eta biografiak azalduko dira, eta topaketa bururatuko duen irakurketaren bidez ere ezagutuko ditugu.



María Luisa Elío



Julia Guerra



María Markotegi

Urriaren 8a
18:30
Kondestablea-
ren jauregia

Para volver a nacer (Tierra de sueños, 2009) liburua-
ren aurkezpena. Egilea: **Rosa Barásoain**. Salvador
Gutiérrez izanen da arduraduna. Bilaketa taldearen
arduraduna da, baita izen bereko poesia eta narrati-
bako nazioarteko lehiaketaren arduraduna ere.
Poemak irakurri eta zuzeneko musika joko da.

Nafarroan diharduen emakume idazleren batek iraku-
rriko du. Zendu diren **María Luisa Elío, Julia Gue-
rra** eta **María Markotegi**rentzat oroitzapen berezia
izanen dugu.

Urriaren 8a
19:30
Kondestablea-
ren jauregia

Loli Albergo Gil. (Iruña, 1962). Poeta eta nobelagilea. Bere eleberrien
artean ditugu: *El misterio de la locamuda* (2002), *Todo es mentira* (2006)
eta *La mujer destruida* (2009). Argitaratu gabeko lan asko ditu.

Marina Aoiz Monreal. Tafalla, 1955. Poesia lan asko ditu, eta horien ar-
tean hauek dira nabarmenenak: *El libro de las limosnas* (2003), *Edelphus*
(2004), *Hueso de los vientos* (2006) eta *Hojas rojas* (2009).

Lucía Baquedano Azcona. Iruña, 1938. Hona hemen bere nobela nabar-
menenak: *Cinco pares de cebada* (1981), gazteei zuzendua, eta *Fantas-
mas de día* (1987), haurrei zuzendua.

Rosa Barásoain Asurmendi. Tafalla, 1956. Argitaratzailea, idazlea eta
itzultzailea. Poema bilduma hauek ditu argitaraturik, besteak beste: *Poe-
mas a tu belleza* (1991) eta *Para volver a nacer* (2009).

Susana Barragués Sáinz. Bilbo, 1979. *Los hipódromos del corazón*
(2002) eta *La campesina fascinada* (2007) poema liburuak eta *Los ladro-
nes de cerezas* (2007) ipuin liburua idatzi ditu.

Isabel Blanco Ollero. Donostia, 1958. Liburu hauek argitaratu ditu: *Tac-
to de miel* (2001), *Desde las Ondas* (2005) eta *Salmo de tu cuerpo* (2009).
Gainera, honako hauetan agertu da, besteak beste: *Antología de nueva
poesía hispanoamericana* (2004) eta *Antología de la literatura navarra
actual* (2008).

María Luisa Elío. Iruña 1926 – Mexiko 2009. Idazlea eta antzezlea. Ipui-
nak idatzi ditu, eta *Tiempos de llorar* (1988) nobelaren egilea da.

inma errea cleix. Iruña, 1960. Idazlea eta itzultzailea. *Literatura eta ha-
rrikoa* (2003) saiakera eta *Bidaia* (2005) eta *JKR, leizeetako eskualdean*
(2006) ipuinak argitaratu ditu.

Charo Fuentes Caballero. Cascante. Bere poema bildumen artean, na-
barmentzekoak dira *Uvas torrenciales* (1984), *Con un papagayo verde*
(1990) eta *Río Arga, Historia y Antología de una Revista Literaria Nava-
rra* (1989).

Fátima Frutos Moreira. Donostia, 1972. Gipuzkoako Ateneoaren Poesia Erotiko-Maitasunezkoen Saria jaso zuen bere lehenbiziko poema bildumarekin (*De carne y hambre*), 2008an, aipatutako sariaren bigarren ekitaldian.

Blanca Gil Izco. Iruña, 1958. Río Arga poesiako kultura elkarteko lehen-dakaria da. Liburu hauetan azaldu da: *Antología de la poesía navarra actual* (1982), *Los anales de Trotomrrotro* (1982) eta *Río Arga y sus poetas* (2001).

Julia Guerra Lacunza. Iruña 1955 – Algeciras 2008. Liburu argitaratuak: *Testamento de lunas* (1983); *Los hijos de la sombra* (1986); *Cárcel de la memoria* (1992); *Al viento* (1996) eta *Dos orillas* (2003). Haren omenez, 2008an, Campo de Gibraltarreko Errepublikaren aldeko Hiritarren Batasun Andaluziarraren Zuzendaritza Batzordeak "Julia Guerra" Poesia Sozialeko I. lehiaketa deitu zuen.

Teresa Imízcoz Beunza. Iruña, 1965. Liburu hauek idatzi ditu, besteak beste: *La teoría poética de Miguel de Unamuno* (1996), *Manual para cuentistas. El arte y el oficio de contar historias* (1999-2002 2. argit.) eta *Quién cuenta la historia. El narrador en los relatos de ficción y no ficción* (2000).

Socorro Latasa Miranda. Agoitz, 1956. Bere obra zabalean hauek nabarmenduko ditugu: *Arpegios de sobra herida* (1989), *Desde la luz y el tiempo* (2005), *Aproximación a la obra literaria de Damián Iribarren* (2007) eta *Hasta el último horizonte* (2008).

Margarita Leoz Munilla. Iruña, 1980. Ipuinak eta poemak argitaratu ditu aldizkarietan. 2008an *El telar de Penélope* poema bilduma argitaratu zuen Madrileko Calambur argitaletxearen bidez, eta, horrekin, 2007an Nafarroako Artista Gazteen Topaketak irabazi zituen.

María Markotegi Ijurko. Etxarri Aranatz 1963–Iruña 2005. Poesia, haurrentzako eta gazteentzako narrazioak eta prentsarako kolaborazioak idatzi ditu. Bere liburuen artean topatuko ditugu (batzuk euskaraz, beste batzuk gaztelaniaz), *Menda eta azukrearen olerkiak* (1991), *La espera* (1992), *Izarratu* (1998), *Erotika* (2001), *Sólo los distraídos creen en la realidad* (2005) eta *Zezilia, Samuel eta Barraskilo kalakaria* (2005).

Laura Mintegi Lakarra. Lizarra, 1955. 1983an *Ilusioaren ordaina* idatzi zuen, narrazio laburren liburu bat, eta ondoren bost nobela: *Bai... baina ez* (1986), *Legez kanpo* (1991), *Nerea eta biok* (1994), *Sisifo maite minez* (2001) eta *Ecce homo* (2006).

Nieve Andrea. Iruña. 2004an *El club de las siete gatas* izeneko nobela argitaratu zuen. 15 urte besterik ez zuela, Nafarroako Kirol eta Gazteriarren Institutuaren 2003ko Topaketetako Literatura Generoen Lehiaketako saria jaso zuen.

Maite Pérez Larumbe. Iruña, 1962. Poema bilduma hauek idatzi ditu: *Precariedad y persistencia* (2009), *Consideraciones del torturador* (2004), *Mi nombre verdadero* (1998) eta *El nombre que me diste* (2003). Horietaz gain, antzerki lan hauek: *Extremófilos*, *Pequeños movimientos* eta *Una oportunidad para Zarraberri*.

Ana Rioja Jiménez. Tuter, 1962. Nobela hauek idatzi ditu: *Julia*, *Rayo de Luna* (1996), *Esa mujer no es para ti* (1998), *Dios creó el corazón de los periodistas* (2000) eta *Sueños, títeres y corazones* (2004).

Castillo Suárez García. Altsasu, 1976. Erregularitasunez argitaratzen du poesia. *Mugarri estaliak* (2000), *Spam poemak* (2004), *Bala hutsak* (2006) eta *Souvenir* (2008) dira bere azkeneko liburuak.

NAFARROAKO EMAKUME IDAZLEEN ERAKUSKETA
IRAILAREN 30etik URRIAREN 8ra

IRILAK 30 ASTEAZKENA
INAUGURAZIOA

19:30

ANNE PERRYrekin topaketa



Anne Perry

URRIAK 1 OSTEGUNA

18:30

EMAKUME NOBEL SARIDUNAK (I)

20:30

ZINEMAKO IDAZLEAK - GOLEM Yamaguchi



Wislawa Szymborska

URRIAK 2 OSTIRALA

20:00

CALIXTHE BEYALArekin topaketa



Calixthe Beyala

URRIAK 3 LARUNBATA

16:30

SORMEN LANTEGIAK

Erritmoa, ahotza eta testua:

VIRGINIA FIRNBERG

19:30

Sorkuntza multimediar:

ELOISA OTERO

TXARO GARAIGORTA

VIRGINIA FIRNBERG



Eloisa
Otero



Txaro
Garaigorta



Virginia
Firnberg

URRIAK 4 IGANDEA

20:00

ZINEMAKO IDAZLEAK

GOLEM Yamaguchi

URRIAK 5 ASTELEHENA

16:30

SORMEN LANTEGIAK

Poesia: **OLVIDO GARCIA VALDÉS**



Olvido García Valdés

20:00

CARME RIERArekin topaketa



Carme Riera

URRIAK 6 ASTEARTEA

18:30

EMAKUME NOBEL SARIDUNAK (II)

20:30

ZINEMAKO IDAZLEAK - GOLEM Yamaguchi



Clara Obligado

URRIAK 7 ASTEAZKENA

16:30

SORMEN LANTEGIAK

Narrazio laburra: **CLARA OBLIGADO**

20:00

Elkarrizketa sortu berri-berria.

XENIA DYAKONOVA

ELVIRA NAVARRO



Elvira
Navarro



Xenia
Dyakonova

URRIAK 8 OSTEGUNA

NAFARROAKO EMAKUME IDAZLEAK

18:30

Liburuaren aurkezpena: *Para volver a nacer*, **Rosa Barásoain**

19:30

Irakurraldia: Nafarroako emakume idazleek egina.

Topaketaren itxialdia.

JAKINGARRIAK

Hitzaldietarako sarrera doan da.
140 lagunentzako tokia, gehienez ere.
Jarduera guztiak doan dira, zinema saioak izan ezik.
(Sarrerak, leihatilan: 5 €)

Lantegietarako aurrez izena eman behar da, hemen:

IPES ELKARTEA

Telleria, 28, behea. Tel.: 948 225 991
Kondestablearen jauregiko jardueretarako zerbitzu bereziak izanen dira, mendekotasuna dutenei, zaharrei eta haurrei laguntzeko. Zerbitzu horiek guxtienez 72 ordu lehenago eskatu behar dira, telefono honetara deituz: 685 968 161.

2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA



**Nafarroako
Gobernua**

Sustapena eta finantzabidea:

Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Laguntzaileak:



**Ayuntamiento de
Pamplona**
Iruñeko Udala

